

ALGORTAN

Asier Zumeta gimnasia txapelduna da aurtengo 'Guaitoa' Algortan

KOLDO GOITIA / ALGORTA

Asier Zumeta herenegun 'Guaito', urteko algortarra izendatu zuten. Hamahiru urteko mutil honek Alemanian egin zen munduko alebin gimnasia txapelketan hirugarren postua lortu zuen. Orain Algortako herriak omenalditxo bat eskaini nahi izan dio bere trebetasuna dela eta. Zumeta pozik dago herriak eman dion ongi-erriekin, komunikabideekin pixkat nekatuta bukatu duela aitortu duen arren.

EGUNKARIA.— Azal iezaiguzu nolakoa izan zen Alemanian egin zen gimnasia txapelketa?


ASIER ZUMETA.— Nik aparatuekin eta elastikarekin ihardun nuen eta azkenean hirugarren postua eskuratzea lortu nuen. Askok borrokatu beharra izan nuen baino azkenean pena merezi izan du.

EGUNKARIA.— Nolakoa izan da Algortako herritarrak eskaini dizuten harrera?

ZUMETA.— Oso pozik nago jendeak eskaini didan ongi-erriekin. Gimnasia ez da oso kirol ezaguna baina hala ere jendeak kalean ikusterakoan agurtzen nau. Oso pozik nago.

EGUNKARIA.— Komunikabideekin nekatuta bukatu duzu?

ZUMETA.— Hasieran egunkari batzuek elkarrizketak egin zizkidaten eta gustora nengoen. Baina denbora pasa ahala eta batez ere telefonotik hasi zirenean entrebistak egiten ba... zuk zer uste duzu, azkenerako...



Asier Zumeta Andra Mari kiroldegian.

JOSE SIMAL

teagatik herritarren bat nabarmendu bada izendapen hau egiten da, eta aurten ni izendatzea erabaki dute.

EGUNKARIA.— Ekitaldiren batean parte hartzen duzu?

ZUMETA.— Bai, Udalak gonbitea egin zidan atzo txupinazoa egiteko.

EGUNKARIA.— Nola ari zara festak pasatzen?

ZUMETA.— Oso ondo, giroa ezin hobea da eta parranda pixkat ere egin dut. Jai hauetan uda osoan bezala oso ondo pasatuko dut.

Zumeta pozik dago herriak eman dion ongi-erriekin, komunikabideekin pixkat nekatuta egon arren ●

EGUNKARIA.— Nola ikusten duzu zure etorkizuna gimnasiaren munduan?

ZUMETA.— Arazorik garrantzitsuena ikasketak dira. Oraingoz OHOk seigarren kurtsoan nago eta ia gai guztiak gainditu ditut. Irailean natur zientzietako azterketa egin beharko dut, baino lasai nago. Etorkizunean ikasketak aurrera eramatea lortzen badut ez dut gimnasia utziko, behintzat erabat ez.

EGUNKARIA.— Zenbat ordu ematen dituzu entrenatzen?

ZUMETA.— Egunean bi edo hiru ordu ematen ditut Andra Mari kiroldegian entrenatzen. Denbora antolatuz gero ez da oztopo beste hainbat gauza egiteko eta alde horretik ez dut gimnasia pisu bat bezala hartzen baizik eta gustokoa dudana kirola bezala.

EGUNKARIA.— Noiz jakin zenuen 'Guaito' izendatua izan zirela?

ZUMETA.— Herenegun izendatu ninduten 1991. urteko 'Guaitoa'. Urtean zerbait egi-



RALLYE HUMORISTIKOAN istilu ugari izan ziren atzo,

JOSE SIMALEn argazkiak erakusten duen bezala. Dirudienez, Algortan egindako Rallyeko partehartzaileek desadostasunen bat izan zuten beren artean eta berehala hasi ziren borrokan. Aurkakoari eraso egiteko armaren bat aurkitu nahian ibili ziren denak, baina azkenean globoak besterik ez zituzten aurkitu. Udaltzaingoak azaldu zuenez, borrokan ez zen zauriturik izan.

BARBIRULAU - BOST

CHARLOT

TRAGUA EDAN ETA...

...KORROK

Amesti z/g
ALGORTA

LAINOA

Urgul Zeharkalea Tfnoa.: 469 25 78 ALGORTA


MORRONGO KAFETEGIA

Especialitatea pintxoetan,
patata tortila eta sandwichak
Torrene, (Postetxe aurrean) Tfnoa.: 4605042 ALGORTA

María Jesús

ILEAPAINDEGIA

Alangobarri, 8 Tfnoa.: 469 51 32 48990 ALGORTA



basurto algorta S.L.

altzarigintza

Telletxe, 15
Tfnoak.: 496 38 43 - 460 42 44 48990 ALGORTA

MANHATTAM KAFETEGIA

Ondo pasa ezazue jaietan

Amesti, 8

ALGORTA



TABERNA

Amesti, 3 ALGORTA

RFOTO
RICARDO

PHOTO CENTER

EKARRI ZURE ROILoa REBELATZERA ETA ZURETZAT DOHAINIK

Argazki roilo bat

Argazki albuma

Argazkirik gustokoena handiagotzea

%10eko deskontua argazki baleetan

ETA GAINERA HILABETERO IRABAZ DITZAKEZU

—Surf taula ezin hobek

—Bidaiak Mallorcara bi pertsonentzat

- Algorta Ibil., 110 (Algorta)- 4693258
- K. Nagusia, 20 (Areeta)- 4634813
- Areatxa k., 1 (Plentzia)- 6772372
- Obieta k., 29 (Erandio)- 4676966
- Euskalherria, 2 (Algorta)- 4608004

GORRONDATXE

Elkarte kulturala